

ren cuatro textos, que versan sobre investigaciones en Cantabria, Vizcaya, norte de Burgos y Alava.

Finalmente, el libro se completa con otros dos escritos que, desde el punto de vista de la Arqueozoología y la Palinología, tratan, respectivamente, de los inicios de la domesticación animal y vegetal en el País Vasco, aspectos de fundamental importancia en las épocas que nos ocupan.

En conclusión, este *Cuaderno* de Eusko Ikaskuntza se convierte en un referente importante –y, en ocasiones, imprescindible– para el conocimiento de los más recientes resultados y tendencias de la investigación sobre las primeras sociedades productoras de alimentos en el País Vasco y sus regiones vecinas.

Ángel Armendáriz



### Revista Euskara 1878-1883

Facsimile edizioa

Lola Valverderen ardurapean.

Donostia ; Eusko Ikaskuntza, 1996. - 6 v. ; 22 cm.

ISBN 84-89516-20-0 (O.C.)

Bertakokeriak jota ditugun komunikabide, unibertsitate eta adierazpide kultural nafar gehienek Nafarroarekiko grina taupadatzen zen euskaroen aldizkaria "Revista Euskara de Navarra" delakoa hutsaren hurrengoaren ixiltasunera zokoratu dute gaur egun arte. Alferrikakoa izan zen Antonio Elortzak 1978.ean kaleratu zuen artikulu mamitsu bezain esanguratsua "euskaro" eta beraien aldizkariarekiko arreta areagotzeko. Konplutenseko irakasleak aipatutakoaz idatzi zuenez geroztik aldizkari zein elkartearen gorabeherak ez dute islada haundirik izan Erresuma ohiaren historiografian ezta kultur adierazpidetan ere. Dirudenez euskal kutsu duen orok pairatzen duen "vitando"en labela ere jasan beharko zuten Juan Iturralde y Suit, Estanislao Aranzadi eta Arturo Kanpion bezalako kultur gizon aitzindariak.

Hala eta guztiz ere, beste era batez ikusten zituzten beraien garaikideek. Orduko euskaltzaleak laister konturatu baitziren nafarrek ireiki zuten ildoak izan zezaken eraginaz. Errate baterako, Jean Duvoisinek Arturo Kanpioni, Asociación Euskara delakoaren sorrera zela eta, honela zioen: "Zuek nafarrak inizatiba emankor bati ekin diozue. Gipuzkoa, laister zuen atzetik dator. Bizkaiak ere bere txanda izanen du. Eutsi zuen lehentasunari. Auskalo etorkizunak zer ekarriko digun!".

Izan ere urrats handia burutu baitzuten 1878.ko hasieran Juan Iturralderen etxean bildutako euskaro nafarrek. Ordurarte euskal kulturaren aldeko inizatibek Iparraldean sustengua

bazuten ere, orduz geroztik Nafarroan, geroxeago beste eskualdetan suertatuko zen legez, ilusio eta kemen handiz garatu ziren. Bigarren gerra karlistaren amaierak sortarazi zuen foruen aurkako kinka larrian ekin zieten ardura kulturaleri euskaltzale nafarrek. Foruak bertan behera uzteko gorpuzten ari zen erasoaldiaren epizentroa zen Madrilan bertan, lau aldundiak batera, "La Paz" aldizkaria martxan jarri zuten legez, Iruñean, egokitzen jo zuten bertako euskaltzaleek maila kulturaleri zegozkien bideak jorratzea.

Lola Valverdek berrargitaraldiko hitzaurrean azpimarratzen du elkargoak eta aldizkariak izan zuten lotura estu bezain sendoa. Historiagile honen arabera, bata edo bestearen azterketa burutzeko ezinbestekoa dugu biak batera lantzea banaezinak baitziren. Arrazoia du Valverdek zeren elkargoaren barne bizitza eta euskaroen profila ezagutzeko ditugun informazio iturri ugari izateaz gain, artikuluek eta aktibitateen ohiartzunek II. gerrate karlistaren ondorengo euskaltzaleetasunaren ezaugarrien berri ematen baitigute.

Bestalde, Trutxuelo ahizpek burutu dituzten inditzei gainbegirada bat luzatuz, arras garbi azaltzen zaigu zenbait eremuren garrantzia baita hainbat euskaltzalaren eragin nabarmena ere. Sortu zenean, Euskaroen Elkargoa sei arlo desberdinetan egituratu ba zen ere, berehala bitara mugatu ziren euskaltzale hauen aktibitateak. Aldizkariari begiratu, eremu guztien gainetik, euskerarena nabarmentzen da erabat. Ildo honetatik, estraineko alean aipatzen zuten helburua, "gordetzea, galtzera utzi gabe, ta edatzea aldaitequen gucian euscarazco mintzaioa" zioena, indar haundienarekin aurrera eramaten saiatu ziren. Euskera, aldizkarian bertan nahiz beraiek Hegoaldeturiko "euskal bestetan", goraiatzeaz gain, ikerketa eta eztabaiden bitartez lehen lekuan paratu zuten. Iraganeko uretan mugitzen diren jakintza arloak hala nola, historia, biografia, tradizioak ikertzen dituen... osagarriak ziren aldizkari horretan.

Idazleei dagokienez, Arturo Kanpion, Juan Iturralde y Suit, bezalako nafar euskaltzaleez gain beste lurraldetako Vicente Aranak, Antonio Truebak, Jose Manterolak gogoz hartu zuten parte Iruñean sortutako inizatibian. Antzekoa egin zuten orduan egundoko ospe eta entzute zuten Claudio Otaegui, Felipe Arrese eta Jose Maria Iparragirre bezalako olerkariak. Izan ere, Urretxuko koblakariak kantatu zuen legez, nafar elkargoan, berak aldarrikatzen zuen euskaldun guztien batasuna, gauzatu egin zen. Beste euskal lurraldeetan antzeko aldizkari edo erakundeak sortu baino lehen nafarrena euskaltzale guztietako adierazpide, babesleku eta ikurra bilakatu zen. Dena den, Lola Valverdek ongi adierazi duenez, Donostiako "Euskal Erria" izan ezik, guztiek antzeko patua, iraupen motzarena hain zuten ere, izan zuten. Tokian tokiko oinarri organizatibo eta ikuspuntu ideologiko-kulturalak gaindituz, urrats berri bat burutzera zetozen XIX eta XX. mendeen bitartean mugitu ziren euskaltzaleak. Izan ere II. karlistadaren ondorioz gorpuztu zen giro defentsibo eta ezkorriari, XX. mendearen hasierako urtetan inizatiba eraikitzaile eta aurrerakoi aunitzek lekuko hartu zioten. Esanguratsuen eta maila askotan, xede, egitura, baita bultzatzaileei begiratu ere, Nafarroako Euskaroen Elkargoari biziki loturik duguna Eusko Ikaskuntzarena da. Oñatin 1918. ean sortutako erakunde honek bere aitzindarien lanak gogorazteko, euskaroen aldizkariaren berrargitaldarekin peto petoan asmatu duelakoan gaude. Gaugerero ikertzaileei dagokie euskaltzale hauen inguruko gaiak, kezak eta galdereei aurre egitea. "Revista Euskara de Navarra" deiturikoa biltzen duten sei liburukiek euskaro-euskaltzaleen belaunaldi aitzindariaren historia sakona burutzeko lagungarri oso izanen direla ziur egon gaitezke.

*Iosu Chueca Intxusta*